

II. Ganbarru Zikloturita Martxako parte hartzaileentzat informazioa

Aupa txirrindulari!

Abadiñoko Ganbarru zikloturista klubak, Irailaren 27an antolatuko duen [II. Ganbarru Martxa Zikloturista](#)ren inguruko informazio zehatza helarazi nahi dizugu. Azpimarratu nahi dugu, gurea, **MARTXA ZIKLOTURISTA** ez konpetitibo bat dela, horrek bere baitan hartzen dituen filosofia eta egiteko moduekin.

Ganbarru kluba, pertsona ezberdinak elkarrekin eta euskaraz bizikletan aritzeko helburuarekin sortu zen eta martxa honek ere, helburu hauek baditu. Izena eman duen txirrindulari orok ibilbidea zentzuzko denbora batean betetzeko modua izan dezan, abiadura eta denborak kontrolatuko dira, puntu jakin batzutan gutxieneko eta gehieneko denborak kontrolatuz.

Ibilbideko xehetasun garrantzisuak hauek dira:

- Martxa, goizeko 08:30tan abiatuko da, San Trokaz plazatik.
- Trabakuako gaina arte, modu neutralizatuan burutuko da martxa.
- Ermuan, San Lorentzoko anoagunea, 10:20tan zabalduko da.
San Lorentzotik aurrera egiteko aukera 10:45etan zabalduko da.
- Kanpazar gainetik pasatzeko gehieneko ordua, 11:50ak izango dira. Ordu hori baino beranduago pasatzen den txirrindularia, martxa laburrera bideratu beharko da Elorriorako bidea hartuz.
- Kanpazar gainean banatzen dira ibilbide luze eta laburra. Horrelako seinaleak aurkituko dituzue ezkerrera (ibilbide luzea) edo eskuinera egiteko (ibilbide laburra)

Ibilbide luzea, ezkerrera egin eta Arrasate aldera egiten duen bidea.	
Ibilbide laburra, eskuinera egin eta Elorrio aldera egiten duena	

- Durangoko Tabira auzoan, 14:15tatik aurrera, zuzenean Abadiñora bideratuko dira txirrindulariak, Larringaneko auzotik pasa gabe.

II. Ganbarru Zikloturita Martxako parte hartzaileentzat informazioa

- Larringaneko igoera oso igoera gogorra da. Igoera hasi aurretik, aukera egongo da zuzenean metarako (Abadiño) bidea hartzeko. Horrelako seinaleak aurkituko dituzue:

Larringan gainera igo eta Mendiolatik Abadiñora joateko	
Zuzenean Abadiñora zuzentzeko	

Guzti hau posiblea izan dadin, antolakuntzak kotxe bat izango du aurrean. Txirrindulariak ezingo duelarik gainditu.




Martxan gaudela inongo asistentzia beharrik izanez gero, deitu telefono honetara:
615795185

II. Ganbarru Zikloturita Martxako parte hartzaileentzat informazioa

Herriko gune garrantzitsuak

Gure martxarekin batera, 27an Euskal Herriko Ardi Moztaileen Txapelketa burutuko da Abadiñon. Ardi moztailen txapelketa probaleku inguruan burutuko da eta gure martxak frontoian izango du erdigunea. Kotxeak eliza atzeko parkinean eta udaletxe atzean dagoen belardian aparkatuko ditugu.

Frontoian, dortsalak banatu, bazkaria eskaini eta motxila / bizikleta gordailua izango ditugu.



II. Ganbarru Zikloturita Martxako parte hartzaileentzat informazioa

Zerbitzuak

Aparkatzeko aukera hauek dituzue

- 2 zenbakiarekin markatutako eliz osteko parkinean
- 3 zenbakiarekin markatutako udaletxe osteko larrean

Komunak, frontoian aurkitu ditzakezue eta **Dutxak** trinketean. Dutxara joaten bazarete, bizikleta frontoian uztea gomendatzen dizuegu. Trinkete inguruan Ardi Moztaileen Txapelketara gerturatu den jende ugari ibiliko da eta bizikleta bertan uzten baduzue, ezingo ditugu bertan babestu.

Dorsal banaketa Frontoian burutuko da.

- Ostirala (Irailak 26) 18:00 - 20:00.
- Larunbata (Irailak 27) 07:00 - 08:25.

Zapatu goizean, frontoian bertan kafe bat hartzeko aukera izango duzue.

Martxan zehar, hiru **anoagune** izango dira:

1. Ermuan, San Lorentzo eskolan: <https://maps.app.goo.gl/a5cb31JoxbeeQUzBA>
2. Legutioko erabilera anitzeko espazioan. <https://maps.app.goo.gl/3Uhr2JmGTSVov8Dh8>
3. Helmugan, Txanporta plazan. <https://maps.app.goo.gl/Nbe6p6nqVvG3h4ZW9>

Bazkaria, arratsaldeko 13:30 eta 15:30 bitartean zerbitzatuko da frontoian.

Bizikleta, txirrindularia eta motxilak identifikatzeko logistika

Zuen dortsala jasotzera frontoira gerturatzen zaretenean, boltsan 2 pegatina eta dortsal edo plaka bat aurkituko duzue.

Plaka bizikletan jarri beharko duzue, manillar aurrean, potsan bertan aurkituko dituzuen bridak baliatuz.

Motxila gordailu zerbitzuan utzi nahi baduzue, heldulekuan itsasteko pegatina bat aurkituko duzue eta motxila batzeko orduan, eskuturreran jartzeko bigarren pegatina erabili beharko duzue jabetza frogatzeko.

Bizikleta gordailuarekin ere berdin jokatu dugu, zuen eskuturreko pegatinarekin identifikatu dugu zuen bizikleta (plaka edo dortsalaren bidez)

II. Ganbarru Zikloturista Martxako parte hartzaileentzat informazioa

Ibilbideak

Ibilbide Laburra

Desnibela: 1.400 metro Kilometroak: 83 km

Ibilbidearen Tracka:

<https://www.plotaroute.com/route/2865412>


**I. GANBARRU
ZIKLOTURISTA MARTXA**

200



GANBARRU

TXIRRINDULARI TALDIE




II. Ganbarru Zikloturista Martxako parte hartzaileentzat informazioa

Ibilbide Luzea

Desnibela: 2.260 metro Kilometroak: 120 km

Ibilbidearen tracka:

<https://www.plotaroute.com/route/2524711>



II. Ganbarru Zikloturita Martxako parte hartzaileentzat informazioa

INFORMAZIO GEHIAGO JASOTZEKO: martxa.ganbarru.eus

Eskerrik asko zuen parte hartzeagatik eta Abadiñon elkar ikusiko dugulakoan,
besarkada batekin agurtzen gara.

Abadiñoko Ganbarru Txirrindulari Taldie